

Hitzordu

Kontuari kontu jolas literarioa

Itziar Zubizarreta



Kontuari kontu euskal tradiziozko ipuin-bilduma bati ematen dio izena. Bertan agertzen dira tradizioetik hartu, moldatu eta gaiez eguneratu diren lau ipuin eder. Askorentzat ezagunak izango dira, noski, baina seguruenik gure haur gehienei berri-berriak irudituko zaizkie. Izan ere, ahozko tradizioaren transmisioa eten egin zen gure herrian aspalditxo eta halabeharrez, euskal ipuin zaharrak folkloristen lanetatik berreskuratu behar izaten dugu euskal sena eta izana ezagutu nahi badugu behintzat.



Lau ipuin hauek ipuingintza unibertsalean ere koka ditzakegu; azken batean, tradiziozko ipuingintza gizakiaren ondarea da eta ez herri bakarrekoa. Herri bakoitzak, ordea, sortu du ondare berezi horren interpretazioa bere gizarte propioari egokituz, bere pentsamolde propioetik sortu duelako, eta egokitzen horretan nabarmenduko dira hainbat aspektu formal, edukiei ematen zaien garrantzia eta hori guztia nola azaltzen duen hizkuntza esamolde propioen bitartez.

Beraz, herri batentzat garrantzi handikoa da tradiziozko ipuinak berreskuratu eta gaur egungo haurren begietara eta belarrietara ekartzea. Alde batetik, ipuin horiek gordetzen dituzten arketipoak oso zuzenak direlako, erraz nabarmentzen da mende bakoitzak erantsi dizkion ohiturazko ñabardurak eta gehitzen dizkien irizpide moralak, aldian aldiko berrikusi eta moldatu behar direnak hurrei transmititzeko orduan. Bestetik, herri bakoitzak sortu duen pentsamoldearen lekuko suertatzen direlako. Horrez guztiaz gain, hizkuntza transmititzeko egitura paregabeak dira, eta merezi du horiek erabiltzea haurren eta helduen

hizkuntza eredua hobetzeko.

Aurreko guztia eguneko euskal gizartera ekartzen dugularik, azpimarratu hizkuntza berreskuratze prozesu batean gaudelarik, gure haur gehienen ama-hizkuntza gaztelania dela, gure irakasle askorena hala den bezalaxe. Ez gure haurrek, ez gure irakasle askok ere ez dute euskal tradizioa eza-gutzen, are gutxiago poesia edota ipuingintza. Euskal ondare literarioa transmititzeak, beraz, balio handia du, berreuskalduntze-prozesu batean; euskal gizarteak bere haur eta gaztetxoak hezteko garaian, mendez mende erabili dituelako egitura literario horiek adierazpide gisa eta hizkuntzaren erabilpen ezin hobe eskaintzen digutelako, hiztun-belaunaldi askoren galbahea pasa ondoren.

Poesiak jolasaren bidea erabili ohi du, batik bat, mugimendua eta keinua eransten dio bere adierazpide gehienei eta haren erritmoa eta doinuaren neurria lagungarri apartak bilakatzen dira hizkuntzaren lorpen-prozesuan. Ipuinak berriz, baloreen transmisiorako erabili izan dira gizarte ezagun guztietan. Bizitzaren bilakaera erakusten dute ipuinek, pertsonok bizitzen ditugun konfliktu existentzialak ekartzen dizkigute begietara, eta haiei aurre nola egin, nola jokatu bizitzak jartzen dizkigun ataka bakoitzaren aurrean.


Tradiziozko ipuingintzak bizitzaren bilakaera modu sinboliko batean aurkezten dio gaztetxoari, gizaldiz gizaldi sortu ditu gizarteak sinbolo unibertsal horiek, psikoanalisiak eta semiotikak hainbeste aztertu dituenak. Sinbologia horretaz baliatzen da ipuina gaztetxoaren emozioetara zuzenean heltzeko, ongi jaurtiriko gezi baten gisa. Ipuinek erakusten diote gaztetxoari bizitzari aurre egiten bere indarrak erabiliz. Gainera, bere buruan konfiantza eta esperantza txertatzen dituzte: bizitzan arerio eta korapilo gogorrak aurkituko badituzte ere, laguntza aurkituko dute bidean, eta lortuko dute korapilo bakoitza askatzea.

Hala ere, esan behar da, belaunaldi bakoitzak ipuin horiek erabili dituenean eraldatu egin dituela bere ikuspegi moralak erabiliz edota bere interes ekonomiko eta politikoen zerbitzuan. Beraz, beti ere, tradiziozko ipuinek moldaketa eta gaurkotze bat behar izaten dute, funtsezko mezuari heldu eta irudien edertasunari zintzo izanik azaltzen dituzten irizpide moralak berrikusi eta gaurkatzeko. Izan ere, ezagutzen ditugun ipuin gehienak idatzirik gorde ziren XIX. mendean eta gizarte haren ikuspegi moralak eta giza kontzeptzioa nagusitzen da haietan, noski.

Lan honi ekiten zaionean, kontu handiz desberdindu behar dira arketipoaren ezaugarriak eta antropologiak deskribatzen dituenak. Hau da, gizaki bakanaren garapena eta hazkunde bilakaera azaltzeko agertzen den sinbologia eta ipuinak erakusten dituen gizarte jakin baten kontzeptu sozialak, moralak eta sexualak. Erabili ditugun tradiziozko ipuin hauetan, garapen indibidualaren bidea agertzen da, heldutasunarena iristeko bidea, arketipoak nabarmentzen direlarik. Saiatu gara, beraz, erabili ditugun bertsioetan agertzen diren moralkeriak alde batera utzi eta arketipo hauen bilakaera argi azaltzen. Bizitza eta heriotza, bakardadea eta laguntasuna, fortuna eta pobrezia, maitasuna eta inbidia... agertzen zaizkigu ipuin hauetan. Kontzeptu hauei ireki diegu atea bilduma sortu dugunean, baita ere, erakusketa eta joko literarioa sortu dugunean.

Bilduma kaxa batean agertzen zaigu, Aitziber Alonsoren ilustrazioarekin eta kaxaren ondoan CD bat kokatu dugu, Zuriñe Fernández de Gerenabarrenaren musika originalarekin batera, ipuinak grabaturik daude Patxi eta Itziar Zubizarretaren ahotsez. Ipuin bakoitza, beste aldetik, liburuxka batean azaltzen da eta ilustratzaile desberdinek parte hartu dute bilduma honetan: *Alaba eta alabaordea* Eider Eibar; *Errege zorria* Jon Zabaleta; *Hiru Olatuak* Maite Gurrutxaga eta *Zazpi lapurrak* Iñaki





Martiarena, Mattin. Bildumaren diseinua eta ipuinen moldaketa Itziar Zubizarretaren eskutik etorri dira.

Aretoa

Ipuin-bilduma hau transmititzeko jolas espazio bat sortu genuen Koldo Mitxelenaren Ganbaran, eta bertan egon da uda osoan. Espazio horretan bi plano gurutzatzen ziren: ametsaren mundua eta errealtatea, bien mugan sare handi bat estalki moduan. Bien arteko bidean, kobrezko espiral erraldoi bat zorutik abiatu eta sare hartan galtzen zena. Espiral honek elkartzen zituen bi munduak; izan ere, ipuin batek zurrumbilo batean sartzen gaitu eta ametsezko mundu batera eramaten gaitu. Zurrumbiloa eszenan sartzeko espiralez gain musika instalazio bat egin genuen, soinu unibertso oniriko bat erantsi genion lehendik sorturiko sentsazioari. Espirala Anton Mendizabal eskultorearen laguntzaz eta bere gidapean eraiki genuen, musikaren instalazioa CDaren konpositore berak sortu eta kokatu zuen, Zuriñe Fernández de Gerenabarrenak, hain zuzen ere.

Ipuinak ametsezko mundu batera eramaten bagaitu, esan behar, aldi berean, haiek ametsezko mundutik datozkigula. Espazio erreala eta onirikoa bereizten duen sare haren lau ertzetatik zintzilik ipuin bakoitza sinbolizatzen zuten lau objektu agertzen ziren, lau instalazio zehatz lurrean kokatzen ziren, aldi berean. Ipuinak ametsezko munduaren ertzean zintzilik ihesi zetozen guregana, guk haiek dastatzeko, ikusteko entzuteko gure eguneroko errealtatean. Ametsezko espazio hori Itsaso Azkarateren laguntzaz sortu genuen eta ondoan izan ziren Karlos Odriozola eta Santi Ezkurra muntaia eta argiztapen lanetan, hirurak Taun Taun Teatroko kideak. Dejabu teatrokideak ere izan genituen lagun ibilbidean.

Haur-taldeak pasa ziren etengabe ganbara hartatik eta beren amestetan sartu ziren eta haien ametsak kontaktu eta marraztu zizkiguten. Mari García Laderok egin zuen dinamizazioa, taldez talde bere ahotsetik entzun zituzten haurrek oihartzun zaharra zuten ipuin berriak. Marik hartuko ditu talde berriak, herriz herri beste haur batzuei ipuin eder horiek kontatzera joaten denean. Izan ere, erakusketa honen moldaketa bat prestatzen ari gara herriz herri gure ipuin hauek kontatzeko.

Itziar Zubizarretarena da proiektu osoaren sormena eta gida egin duena. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Galtzagorri Elkartearen eskutik ikusi du argia eta egingo du ondorengo ibilbidea.